Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

FUNDACIÓN GOTEO

## ERANSKINA

**Meta! egitasmoan parte hartzeko deialdiaren oinarriak**

**IZENBURUA:**

**Meta! Mikromezenasgo kulturala Gipuzkoan**

### 1. TESTUINGURUA ETA GAIAK:

**Meta!** Mikromezenasgoko bide bat da, talde-finantzazioa egiteko tresna berria, pertsona askoren arteko lankidetzan oinarrituta; pertsona horiek ekimen jakin baten garapenari laguntzeko diru-kopuru bat biltzeko, internetek eskaintzen dituen aukerak erabiltzen dituzte. Mikromezenasgoaren oinarria ez da eskatzea, aitzitik, proiektu baten inguruan dauden interes-taldeak parte hartzera bultzatzea eta horiei eragitea da; hala bada, finantzazioa lortzeko modu batetik harantz, harremanetan jartzeko eta lankidetzan aritzeko modu berria proposatzen du.

**Meta!** egitasmoa Goteoren bidez garatzen da. Goteo talde-finantzazioa (diru-ekarpenak) eta lankidetza banatua (zerbitzuak, azpiegiturak, mikroatazak eta beste baliabide batzuk) burutzeko gizarte-sarea da, eta haren bidez, herritarren konpromisoari esker, proiektu sortzaile eta berritzaileen garapen autonomoa sustatzen da, gizarte, kultura, zientzia, hezkuntza, teknologia edo ekologiaren esparruetako helburuak lortzearren.

Hala bada, Goteo mikromezenasgoa erakartzeko plataforma da, pertsonek eta erakundeek gizartearen aldetik errentagarriak, jasangarriak eta denboran iraunkorrak diren proiektuak arrakastaz burutzeko. Gizartearen etengabeko hobekuntza lortzeko aukera berriak sortzen dituzten ekimenak, garatzen diren lekuetan aldaketa positiboak bultzatzera bideratuta, horiek sortzen edota hartzen dituen komunitatea indartzen laguntzen dutenak (gizarte-onura), eta ezinbestez ondare eta baliabide komunak aberasten laguntzen duen DNA irekia dutenak, era horretan ahalik eta pertsona- eta talde-kopuru handienak transferitu eta berrerabiltzeko aukera ziurtatuz (eta, ondorioz, guztien ongia sustatuz). Mikromezenasgoak oro har, eta Goteok

## ANEXO

**Bases convocatoria de Meta!**

**TÍTULO:**

**Meta! Micromecenazgo cultural en Gipuzkoa**

### 1. CONTEXTO Y TEMÁTICA:

**Meta!** Es una via de micromecenazgo, una nueva herramienta de financiación colectiva basada en la cooperación entre muchas personas, que utilizan las posibilidades que ofrece internet, para reunir una suma de dinero con la que apoyar el desarrollo de una iniciativa concreta. El micromecenazgo se basa, más que en pedir, en implicar y afectar a los distintos grupos de interés existentes alrededor de un proyecto, por lo que más allá de una forma de conseguir financiación, plantea una nueva forma de relacionarse y colaborar.

**Meta!** se desarrolla a través de Goteo, una red social para la financiación colectiva (aportaciones monetarias) y colaboración distribuida (servicios, infraestructuras, microtareas y otros recursos), desde la que se impulsa, gracias al compromiso de la ciudadanía, el desarrollo autónomo de proyectos creativos e innovadores, cuyos fines sean de carácter social, cultural, científico, educativo, tecnológico o ecológico.

Goteo es, pues, una plataforma de captación de micromecenazgo para que personas y organizaciones puedan llevar a cabo con éxito proyectos socialmente rentables, sostenibles y perdurables en el tiempo. Iniciativas que generen nuevas oportunidades para la mejora constante de la sociedad, orientadas a propiciar cambios positivos en los lugares donde se desarrollan, contribuyendo a fortalecer la comunidad que las genera y/o acoge (bien social); y que necesariamente tengan un ADN abierto a través del que enriquecer los bienes y recursos comunes, asegurando así la posibilidad de transferencia y reutilización por el mayor número posible de personas y colectivos (fomentando, por tanto, el bien común). El micromecenazgo en general y Goteo en particular, tienen una serie de

bereziki, hainbat berezitasun dituzte, **Meta!** egitasmora aurkeztutako proiektuak modu eraginkorrean doitu ahal izateko kontuan hartu behar direnak.

peculiaridades que hay que tener en cuenta para poder ajustar de manera más eficaz los proyectos presentados a **Meta!**

Dokumentu honen bidez Gipuzkoako kultura-proiektuen mikromezenasgoa (**Meta!**) bultzatzeko kanpainaren oinarriak zehaztu dira.
Deialdi honen bidez, hortaz, Gipuzkoan finkatutako eragileek garatzen dituzten ekimen berritzaileen sorrera bultzatu nahi da kulturaren esparruan, herritarren parte-hartzearekin.

El presente documento determina las bases de la Campaña de micromecenazgo de proyectos culturales de Gipuzkoa (**Meta!**).
Esta convocatoria, por tanto, pretende favorecer el surgimiento de iniciativas novedosas en el ámbito cultural, desarrolladas por agentes radicados en Gipuzkoa, buscando la implicación de la ciudadanía.

**2.- NORI ZUZENDUTA DAGO?**

Mikromezenasgoa bultzatzeko deialdi honetan, Gipuzkoako gizarte zibileko eragileek –partikularrek nahiz elkarteek– garatuko duten kultura-izaerako edozein proiektu aurkez daiteke.
Deialdi honetatik kanpo geratuko dira enpresak, udalak eta bestelako administrazio-erakundeak, eta, halaber, Gipuzkoako Foru Aldundia partaide duten erakunde eta organismoak.

Ezingo dira aurkeztu, ezta ere, aurreko **Meta!** deialdietan hautatuak izan diren proiektuak.

Mikromezenasgoa bultzatzeko kanpaina honetan parte hartzeak berekin dakar proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak antolatzen dituen bestelako laguntzak eta diru-laguntzak eskuratzeko deialdietara ezin aurkeztea.

**2.- A QUIÉN VA DIRIGIDA:**

Esta convocatoria de micromecenazgo está abierta a cualquier proyecto de índole cultural, a desarrollar por parte de agentes de la sociedad civil guipuzcoana, bien particulares, bien asociaciones.
Quedan excluidos de esta convocatoria las empresas, los ayuntamientos y otras instituciones administrativas, así como los entes y organismos de los que forma parte la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Tampoco podrán presentarse los proyectos que hayan sido seleccionados en anteriores convocatorias de **Meta!**

La participación en esta campaña de micromecenazgo presupone la no presentación del proyecto participante a ninguna otra convocatoria de ayudas y subvenciones del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**3.- PROIEKTU MOTAK:**

**3.1.- Gaiak**

Mikromezenasgoa bultzatzeko kanpaina honen barruan sartuko dira gipuzkoar eragileek garatutako kultura-proiektuak.
Bereziki baloratuko dira ekimen berritzaileak, gipuzkoar eragileen sorkuntza-ahalmenari eragiteko eduki nabarmena dutenak.

Era berean, parte hartu ahal izango dute gipuzkoar eragileek nazioarteko lankidetzaren

**3.- TIPO DE PROYECTOS:**

**3.1.- Temas**

Tienen cabida en esta convocatoria de micromecenazgo los proyectos culturales desarrollados por agentes guipuzcoanos.
Especialmente se valorarán aquellas iniciativas novedosas y con un fuerte componente de activación de la capacidad creadora de los agentes guipuzcoanos.
También podrán tomar parte iniciativas de índole cultural desarrolladas por agentes guipuzcoanos

esparruan garatutako kultura-izaerako ekimenek.

**3.2.- Formatuak**

Kulturaren alorreko edozein ekimen, ekitaldi, programa, ekoizpen kultural, zerbitzu, teknologiaren garapen,… aurkeztu ahal izango da mikromezenasgoa bultzatzeko kanpaina honetan.
Mikromezenasgoa bultzatzeko kanpaina Gipuzkoako gizarteari zuzenduta egonda, formatuaren bidez bilatu beharko da proiektua lurraldeko kultura- eta sorkuntza-beharrekin batzeko erarik onena, eta baita nazioarteko lankidetzako ekintzen barruan kulturaren esparruan esku hartzea ere.

**3.3.- Gutxieneko aurrekontua eta aurrekontu hoberena**

Proiektuaren aurrekontua finkatzeko orduan, banatu egin behar da, gutxieneko aurrekontua eta aurrekontu hoberena zehaztuz.
Kanpainaren helburua gutxieneko aurrekontua gainditzea da; helburu horretara iristea lortzen denean, bilketaren gainerakoa sartu egingo da, nahiz eta aurrekonturik hoberenera ez iritsi.

Gutxieneko aurrekontuaren barruan sartu behar dira funtsezko eta ezinbesteko atazak eta kontusailak (oso garrantzitsua da aurrekontuan jasotzea banakako sariak nahiz taldeko itzulketak sortu eta bidaltzeko gastuak, eta Goteoren komisio guztiei eta banku-transakzioei dagozkien % 6).

en el área de la Cooperación internacional.

**3.2.- Formatos**

Cualquier iniciativa en el ámbito de la cultura, evento, programa, producción cultural, servicio, desarrollo tecnológico… es susceptible de presentarse a esta campaña de micromecenazgo.

Dado que la convocatoria de la campaña de micromecenazgo está dirigida a la sociedad guipuzcoana, el formato deberá buscar el mejor entronque del proyecto con las necesidades culturales y creativas del territorio, así como la intervención en el ámbito cultural en acciones de Cooperación internacional.

**3.3.- Presupuesto mínimo y óptimo**

A la hora de fijar el presupuesto del proyecto, hay que dividirlo especificando un mínimo y un óptimo.
El objetivo de la campaña es superar el presupuesto mínimo; a partir de que se haya conseguido llegar a esa meta, el resto de la recaudación se ingresará aunque no se llegase al presupuesto óptimo.
El presupuesto mínimo debe incluir las tareas y partidas fundamentales e imprescindibles (es muy importante contemplar en el presupuesto los gastos relativos a la producción y envío de recompensas individuales y retornos colectivos, así como el 6% correspondiente a la suma de comisiones de Goteo y de las transacciones bancarias).

**4.- META! EGITASMORAKO DATAK ETA PROZEDURAK:**

**4.1.- Aurkezteko epea eta modua**

2017ko apirilaren 24tik ekainaren 9ra arte, biak barne, irekita egongo da proposamenak prestatu, horien inguruko aholkularitza eman eta bidaltzeko epea, geroago **Meta!** egitasmoaren barruan baloratzeko. Proposamenak aurkezteko, erabiltzaile bat sortu beharko da eta deialdi honetarako dagoen web orrialdean (**https://goteo.org/call/meta-gipuzkoa**) erabilgarri dagoen proiektuak jasotzeko

**4.- FECHAS Y PROCEDIMIENTOS DE META!:**

**4.1.- Plazo y modo de presentación**

Entre el 24 de abril y el 9 de junio de 2017 ambos incluidos se mantiene abierto el plazo de convocatoria pública para la preparación, asesoramiento y el envío de propuestas para su posterior valoración dentro de **Meta!**. La presentación de las propuestas se llevará a cabo creando un usuario y rellenando un formulario de recepción de proyectos habilitado en la página web de esta convocatoria

inprimakia bete, **http://goteo.org** orrian erabiltzailearen profil bat erregistratu eta gero.

Komenigarria da inprimakia azken unean ez betetzea eta, aitzitik, proiektuaren edizio eta argitalpenean lanean aritzea pixkanaka, egin beharreko urratsak eginez eta eskuragarri dagoen tutoretza erabiliz. Parte-hartzaileek gehienez ere bi proiektu aurkeztu ahal izango dituzte (hala ere, kanpainan sartzeko, proiektu bat aukeratuko da parte-hartzaile bakoitzeko), inprimakian dauden eremu guztiak bete beharko dituzte (izenburua, deskribapen laburra, aurrekontua, oinarrizko ezaugarriak, mikromezenasgoa bultzatzeko kanpainaren helburuak, eskaintzen diren banakako sariak eta taldeko itzulketak, eskatutako lankidetzak, lantaldearen aurretiazko esperientzia eta deskribapena, aurrekontua eta lan-egutegia, etab.), eta kasu guztietan, AZTERTZERA BIDALI (*) beharko da, proiektu bakoitza behar bezala baloratu ahal izateko, **Meta!** egitasmoaren izaera orokorrarekin duen kidetasunaren arabera eta oinarri arautzaile hauen 5. puntuan zehaztutako balorazio-irizpideen arabera.

Proiektuak aurkezteko epea 2017ko ekainaren 9an amaituko da, 23:59an, eta hortik aurrera ez da deialdi honetarako proposamen gehiago onartuko.

(*) Inprimakia AZTERTZERA BIDALTZEN ez bada, baliogabetzat hartuko da, eta ez da hautaketaren barruan sartuko deialdian.

**4.2.- Hedakuntza- eta prestakuntza-ekintzak**

Proiektu bat aurkeztu eta proiektua hobetzen eta mikromezenasgora egokitzen lagundu nahi dutenei ahalik eta informazio gehiena emateko, hainbat hedakuntza- eta prestakuntza-ekintza antolatuko dira **Meta!** egitasmoaren esparruan:

- 2017ko maiatzaren 9a: Crowdfunding-ari buruzko prestakuntza tailerra.
- 2017ko uztailaren 11: Lantegi praktikoa eta nahitaez egin beharrekoa, **Meta!** egitasmorako hautatutako proiektuen egileek mikromeze-nasgoko kanpainatan prestatzeko.

Ekintza horiei buruzko informazio xehatua nahiz

**https://goteo.org/call/meta-gipuzkoa** previo registro de un perfil de usuario en **http://goteo.org**

Conviene no dejar la cumplimentación del formulario para el último momento, sino ir trabajando en la edición-publicación del proyecto siguiendo los pasos y utilizando el tutorial disponible. Los participantes podrán presentar un máximo de dos proyectos (aunque en todo caso sólo se elegirá uno por participante para entrar en campaña), deberán cumplimentar todos los campos requeridos en dicho formulario (título, descripción breve, presupuesto, características básicas, objetivos de la campaña de micromecenazgo, recompensas individuales y retornos colectivos que se ofrecen, colaboraciones solicitadas, experiencia previa y descripción del equipo, así como el presupuesto y calendario de trabajo, etc.) y en todos lo casos ENVIARLO A REVISIÓN (*), de forma que cada proyecto pueda ser valorado convenientemente según su afinidad con el carácter general de **Meta!** y con los criterios de valoración especificados en el punto 5.- de estas Bases Reguladoras.

Finalizado el plazo presentación de proyectos, el 9 de junio de 2017 a las 23:59, no se aceptarán nuevas propuestas para esta convocatoria.

(*) Si el formulario no es ENVIADO A REVISIÓN se considerará nulo y no entrará a formar parte de la selección en la convocatoria.

**4.2.- Acciones de divulgación y formación**

Para aportar la máxima información a quienes quieran presentar un proyecto y contribuir a su mejora y adaptación al micromecenazgo, en el marco de **Meta!** se organizan una serie de acciones de divulgación y formación:

- 9 de mayo de 2017: Taller formativo sobre crowdfunding.
- 11 de julio de 2017: Taller práctico, y obligatorio, de formación en campañas de micromecenazgo para los proyectos seleccionados de **Meta!**

La información detallada sobre estas acciones,

izen emateko eta parte hartzeko moduak web hauetan egongo dira eskuragarri
**meta.gipuzkoa.eus eta**
https://goteo.org/call/meta-gipuzkoa

Tailerretan parte hartzea guztiz gomendagarria da Meta! egitasmorako proposamen bat aurkezteko interesa duten pertsonentzat, prozesuan dauden proiektuei buruzko saio praktikoak direlako, taldeko finantzaketaren eta talde-itzulketen zein beste gai batzuen gakoen, irizpideen eta ebaluazioaren oinarrizko alderdiak egiaztatu eta horien inguruan ikasteko. Prestakuntza-lantegi horietan parte hartuz gero, funtsezko hobekuntza lortuko da kanpaina-proposamenen bideragarritasunean, hori ezinbesteko irizpidea baita aukeratuko diren proposamenak hautatzeko.

Aukeratutako 20 proiektuei zuzendutako tailer espezifikoan nahitaez parte hartu behar da, horien funtzioa baita modu pertsonalizatuan eta presentzialean aholkuak ematea sustatzaileei, komunikazioa eta sareak hobetzeko eta komunitatea atenditzeko, gutxienez ezarritako finantzaketa lortzeko aukera gehiago izan dezaten, eta jakina, kanpainarekin arrakasta lortzeko.

**4.3.- Proiektuen balorazioa eta hautaketa**

Behin deialdia egiteko epea itxi denean, epaimahai batek, berariaz ondorio honetarako eratuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Goteo Fundazioko kideek osatuak, proiektuak ebaluatu eta hautatuko ditu. Epaimahaiak proiektuei buruzko informazio gehiago eskatu ahal izango du eta, halaber, beharrezkotzat jotzen badu, aholkularien laguntza eskatu ahal izango du, behar bezala baloratzeko berariazko ezagutza beharrezkoa duten gai jakin batzuetarako.

Gehienez ere 20 proiektu hautatuko dira, eta horietako bat nazioarteko lankidetzaren esparrukoa izan daiteke.
Hautatutako proiektuen sustatzaileei banaka eta posta elektronikoaren bidez egingo zaie jakinarazpena, eta proiektuen zerrenda osoa **Meta!** egitasmoaren web orrian eta Goteo.org webgunean argitaratuko da, 2017ko ekainaren

así como las formas de inscripción y participación, estará disponible en:
**meta.gipuzkoa.eus** y en
https://goteo.org/call/meta-gipuzkoa

La asistencia a los talleres es altamente recomendable para personas interesadas en presentar una propuesta para Meta!, ya que se trata de sesiones prácticas sobre propuestas de proyectos en proceso, para contrastar y aprender sobre los aspectos básicos de la financiación colectiva, los retornos colectivos, así como las claves, criterios de evaluación y otras cuestiones. La participación en estos talleres de formación mejora sustancialmente la viabilidad de las propuestas de campaña, criterio de valoración absolutamente fundamental para la selección de las propuestas que serán elegidas.

La asistencia al taller específico orientado a los 20 proyectos seleccionados es obligatoria ya que su función es asesorar de manera personalizada y presencial a los impulsores para mejorar la comunicación, redes, atención a la comunidad con el objetivo de potenciar las posibilidades de conseguir la financiación mínima establecida, y por tanto el éxito de la campaña.

**4.3.- Valoración y selección de proyectos**

Una vez cerrado el plazo de convocatoria, los proyectos serán evaluados y seleccionados por un jurado constituido a tal efecto, formado por miembros de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Fundación Goteo. El jurado podrá solicitar más información sobre los proyectos, así como, si lo considerase necesario, podrá demandar el apoyo de agentes asesores en determinadas temáticas que puedan requerir de un conocimiento específico para su correcta valoración.

Se seleccionarán un máximo de 20 proyectos, uno de los cuales podrá ser del ámbito de la Cooperación internacional.
La notificación a los agentes promotores de los proyectos seleccionados se realizará de manera individual vía mail y la lista completa se publicará en la web de **Meta!** y en Goteo.org antes del 29 de junio de 2017.

29a baino lehen.

**4.4.- Aholkularitza hautatutako proiektuei**

2017ko uztailaren 3tik irailaren 14ra bitartean, biak barne, hautatutako proiektuen sustatzaileek online aholkularitza espezializatua eta banakakoa jasoko dute, proiektuak mikromezenasgoa bultzatzeko kanpainara egokitzen eta optimizatzen amaitzearren eta proiektu bakoitzaren helburuak maximizatzearren (itzulketak eta sariak, gutxieneko aurrekontua eta aurrekontu hoberena, bideoa eta irudiak,...). Halaber, komunikazio- eta marketin-plan bat behar bezala antolatzeko lan egingo da, kanpainen arrakasta-aukerak maximizatzearren.

**4.5.- Meta! egitasmoko proiektuak ezagutzera ematea eta garatzea**

2017ko irailaren 14an, hautatutako proiektuen mikromezenasgoa bultzatzeko kanpainak aldi berean ezagutzera emango dira; kanpaina horien bidez, proiektuen sustatzaileek, herritarrek, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Goteok eta beste kolaboratzaile-eragile batzuek ahaleginak batuko dituzte aurretiaz finkatutako finantzazio-helburuak erdiesteko.

Proiektu bakoitzak elementu hauek izango ditu: aurkezteko berezko espazioa, albisteak eman eta eguneratzeak egiteko bloga, 2.0 komunikazio-tresnak, ordainketa-pasabidea, etab. Kanpainaren epea 2017ko irailaren 14tik abenduaren 4ra artekoa izango da (biak barne), eta epe horren barruan ondorengoak sartuta daude: bi finantzazio-erronda: lehenengoa, irailaren 14tik urriaren 24ra arte, eta bigarrena: urriaren 25etik abenduaren 4ra arte, proiektuaren gutxieneko aurrekontuari eta aurrekontu hoberenari lotuta (alderdi honi buruzko informazio gehiago, oinarri arautzaile hauen 6.1. puntuan).

Mikromezenasgoa bultzatzeko kanpaina amaitu eta hurrengo 12 hilabeteetan, Goteok eta proiektu arrakastatsuen eta haien helburu eta konpromisoen jarraipena egingo dute, parte hartzen duten eragileek eta kolaboratzaileek kasu bakoitzean ezarritako epeei jarraituz.

**5.- BALORAZIO IRIZPIDEAK**

**Meta!** egitasmoan aurkezten diren proiektu

**4.4.- Asesoramiento a proyectos seleccionados**

Entre el 3 de julio y el 13 de septiembre de 2017, ambos inclusive, los agentes impulsores de los proyectos seleccionados recibirán asesoría online especializada y personalizada, de cara a terminar de adecuar y optimizar los proyectos a la campaña de micromecenazgo y maximizar los objetivos de cada proyecto (retornos y recompensas, presupuesto mínimo y óptimo, vídeo e imágenes...). Asimismo se trabajará en la correcta articulación de un plan de comunicación y marketing de cara a maximizar las posibilidades de éxito de las campañas.

**4.5.- Lanzamiento y desarrollo de proyectos de Meta!**

El 14 de septiembre de 2017 se realizará el lanzamiento simultáneo de las campañas de micromecenazgo de los proyectos seleccionados, a través de las cuales, los agentes promotores de los proyectos, la ciudadanía, la Diputación Foral de Gipuzkoa, Goteo y otros agentes colaboradores sumarán sus esfuerzos para alcanzar los objetivos de financiación prefijados.

Cada proyecto dispondrá de su propio espacio de presentación, blog para noticias y actualizaciones, herramientas de comunicación 2.0, pasarela de pago, etc. El plazo de campaña será del 14 de septiembre hasta el 2 de diciembre de 2017 ambos inclusive, incluyéndose en este plazo dos rondas de financiación, la primera del 14 de septiembre al 23 de octubre y la segunda del 24 de octubre al 2 de diciembre, vinculadas al presupuesto mínimo y óptimo del proyecto (más información sobre este aspecto en el punto 6.1.- de estas Bases Reguladoras).

Durante los 12 meses posteriores a la finalización de la campaña de micromecenazgo se realizará por parte de Goteo el seguimiento de los proyectos exitosos y del cumplimiento de sus objetivos y compromisos, según los plazos establecidos en cada caso con posibles agentes implicados y colaboradores.

**5.- CRITERIOS DE VALORACION**

De entre todos los proyectos que se presenten a

guztien artean, **20 proiektu** arte aukeratuko dira, fondoak bilatzeko kanpaina (mikromezenasgoa) egiten den fasera igarotzeko. Erakunde edo pertsona bakoitzak proiektu bat edo gehiago aurkeztu ahal izango ditu deialdira, baina bat bakarrik aukeratuko da. Proiektuetako bat gorde ahal izango da lankidetza-alorreko ekimen baterako.

Aukeraketa egiteko, kontuan hartuko da proposamenaren bideragarritasun orokorra eta proiektuak nola egokitzen diren mikromezenasgoak finantzatzeko bitarteko bezala eskaintzen dituen aukeretara, balorazio-irizpide hauen arabera:

- Zehazteko fasean egotea eta, aurrekontu koherenteaz gain, ekimena modu eraginkorrean garatzeko plan bat izatea. (2 PUNTU)
- Esperientzia eta gaitasun frogagarriak dituzten eragileek sustatuta egotea edo eragile horiek bertan parte hartzea, modu eraginkorrago eta erakargarriagoan hedatzeko, eta, proposatutako aholkularitzaz, komunikazio-plan bat garatu eta ezartzeko gaitasuna eta denbora izatea. Hori frogatzeko, komunikazio digitalaren hasierako deskribapen labur bat ipini beharko da Goteon, mikromezenasgoa bultzatzeko kanpainari begira, proiektuak inskribatzeko inprimakiak duen “Hedapena” atalean. (3 PUNTU)

- Proiektua zer kolektibo eta interes-talderi zuzenduta egongo den ondo identifikatuta egotea. (PUNTU 1)

- Interes-taldeentzat erakargarriak diren banakako sariak proposatzea eta kalitatezko talde-itzulketak sortzea, emaitzak erabili eta erreplika egitea ahalbidetzeko erabilera komuneko baliabideak eskura jarrita, kodea irekita eta lizentzia libreak erabilita. (PUNTU 2)

- Proposamenaren kalitatea eta originaltasun- nahiz berrikuntza-maila, egungo ezagutzaren, produktuen eta zerbitzuen eskaintzari dagokionean nahiz komunitatearentzat desiragarriak diren eta ingurunea eraldatzeko eragin

**Meta!**, se seleccionarán hasta un máximo de **20 proyectos** para su paso a la fase de campaña de búsqueda de fondos (micromecenazgo). Cada organización o persona podrá presentar uno o varios proyectos a la convocatoria pero sólo se seleccionará uno. Se podrá reservar uno de los proyectos para una iniciativa del área de Cooperación.

Para hacer esta selección se considerará la viabilidad general de la propuesta y adecuación de los proyectos a las posibilidades que ofrece el micromecenazgo como medio de financiación, teniendo en cuenta los siguientes criterios de valoración:

- Que se encuentren en una fase de concreción y cuenten con un presupuesto coherente y un plan para el desarrollo efectivo de la iniciativa. (2 PUNTOS)
- Que estén impulsadas y/o impliquen a agentes con experiencia y capacidad demostrable para difundirlas de manera eficaz y atractiva, y que tengan la capacidad y el tiempo disponible de, con el asesoramiento propuesto, desarrollar un plan de comunicación e implantarlo. Esto deberá demostrarse proponiendo una primera descripción breve del plan de comunicación digital para la campaña de micromecenazgo en el apartado “Difusión” del formulario de inscripción de proyectos en Goteo. (3 PUNTOS)

- Que tengan bien identificados los colectivos y grupos de interés para su proyecto. (1 PUNTO)

- Que propongan recompensas individuales atractivas para sus grupos de interés y generen retornos colectivos de calidad, que permitan la utilización y replicabilidad de los resultados mediante la puesta a disposición de recursos de uso común, la apertura del código y la utilización de licencias libres. (2 PUNTO)
- Calidad de la propuesta y nivel de originalidad e innovación respecto a la actual oferta de conocimientos, productos, servicios, y respecto a la promoción de valores deseables para la comunidad, que generen efectos

positiboak sortzen dituzten balioak sustatzeari dagokionean. (3 PUNTU)

- Partaidetza-kudeaketa gardena, lankidetza-jardunbideak edota eragileen arteko lankidetza sustatzea. (PUNTU 1)

- Proiektua Gipuzkoan garatu eta burutzea, eta proiektuaren bidez Gipuzkoako kulturaren esparrua aberastu eta bertan elkarri lotzea, eta, halaber, Gipuzkoako ekosistema kulturalean sar daitezkeen kalitatezko eta sormenezko proiektu eta ekimenak dakartzaten eragile berrien agerpena sustatzea. (3 PUNTU)

positivos, transformadores en el entorno. (3 PUNTOS)

- Promoción de la gestión participativa y transparente, las prácticas colaborativas y/o la cooperación entre distintos agentes. (1 PUNTO)

- Ser un proyecto desarrollado y realizado en Gipuzkoa, que pueda enriquecer y promover la aparición de nuevos agentes en la escena cultural guipuzcoana, aportando proyectos e iniciativas de calidad y creatividad que puedan interconectarse e integrarse en el ecosistema cultural de Gipuzkoa. (3 PUNTOS)

Azkenik, deialdi honetako Ebaluazio Batzordeak beretzat gordeko du aukeratutako 20 proiektuen arteko plaza bat garapenerako lankidetza sustatzen duen proiektu bati emateko ahalmena. Lortutako puntuazioa kontuan hartu gabe gordeko da plaza, eta proiektuaren gaia kulturala izan beharko da, deialdi honetan lankidetzan aritzeko kultura-ekimenak sartzea errazteko helburuaz.

Por último, la Comisión de evaluación de esta convocatoria se reserva la capacidad para destinar una de las 20 plazas de proyectos seleccionados a un proyecto de cooperación al desarrollo, con temática cultural, más allá de la puntuación obtenida, con el fin de favorecer la inclusión de iniciativas culturales orientadas a la cooperación en esta convocatoria.

Hautatutako proiektu bakoitzeko gutxienez pertsona batek joan beharko du, nahitaez, 2017ko uztailaren 11n egingo den prestakuntza tailerrera.

Al menos una persona por proyecto seleccionado deberá obligatoriamente asistir al taller de formación que se desarrollará el día 11 de julio de 2017.

Goteo Fundazioak beretzat gordeko du argitalpena egiteko oinarrizko irizpideak eta oinarri hauetan zehaztutako baldintzak betetzen ez dituzten proiektuak goteo.org plataforman ez argitaratzeko eskubidea (https://goteo.org/faq/project)

La Fundación Goteo se reserva el derecho de no publicación de aquellos proyectos que no cumplan los criterios básicos de publicación de la plataforma goteo.org disponibles en https://goteo.org/faq/project, y los términos definidos en estas bases.

**6.- META! EGITASMOAREN UREZTATZE-KAPITALA**

Gipuzkoako proiektu kulturalen kanpainak 70.000 euro arteko ureztatze-kapitala duen poltsa bat du, herritarrek Goteo plataformaren bidez proiektuei ematen dizkieten banakako ekarpenak osatzeko.

**Meta!** egitasmoaren ureztatze-kapitala

**6.- CAPITAL RIEGO DE META!**

La Campaña de proyectos culturales de Gipuzkoa cuenta con una bolsa de Capital Riego de hasta 70.000€ para complementar las aportaciones individuales que realiza la ciudadanía a los proyectos a través de la plataforma Goteo.

El Capital Riego de **Meta!** se adjudicará a los

proiektuei esleituko zaie kanpaina egiteko denbora amaitutakoan, eta kanpaina arrakastatsua suertatu bada betiere, proportzio honetan: euro 1eko ureztatze-kapitala mikromezenasgoaren bidez bildutako euro bakoitzeko, eta gehienez ere 3.500 euroko ureztatze-kapitala banatuko da proiektu bakoitzeko, artikulu honen A eta D ataletan jasotako baldintzatzaileak betez.

proyectos al concluir el tiempo de campaña, y siempre que ésta hubiera resultado exitosa, a razón de 1€ de Capital Riego por cada euro recaudado vía micromecenazgo, con un límite de 3.500€ de Capital Riego por proyecto, dentro de los condicionantes recogidos entre los apartados A y D de este artículo

Behean jasota daude 70.000 euroko ureztatze-kapitala aukeratutako proiektuen artean banatzeko baldintzak eta beste alderdi batzuk (mugak, kontratuak eta ordainketak):

Las condiciones de distribución de los 70.000€ de Capital Riego entre los proyectos seleccionados, así como otras cuestiones de límites, contratos y pagos se especifican a continuación:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiak jartzen duen **Meta!** egitasmoaren ureztatze-kapital osoa 70.000 eurokoa da gehienez.
b) Ureztatze-kapitala bikoizteko ekarpena behin bakarrik egingo da pertsona edo erakunde eta proiektu bakoitzeko (hau da, Goteoko erabiltzailearen profil bakoitzetik). Profil beretik nahi adina ekarpen egin ahal izango zaio proiektu bati, baina ureztatze-kapitala erabiltzaile edota erakundeak egiten duen lehenengo ekarpenean soilik gehituko da, eta gehienez ere 100 euro arte.
c) Goteon burutu diren gainerako crowfunding kanpainetan bezala, proiektu bakoitzari emandako ureztatze-kapitalaren kopurua azkenean eraginkor egiteko, proiektua bere gutxieneko finantzaketara iritsi behar da kanpainaren lehenengo 40 egunetan.
d) Lehenengo 40 egunak igaro eta gero proiektu batek edo batzuek gutxieneko finantzaketa-helburura iristea lortzen ez badute, proiektu horiek bildutako kopuruak ez dira eraginkor egingo eta ekarpenei lotutako ureztatze-kapitala erabilgarri geratuko da beste proiektu batzuetarako; proiektu horiek dirua biltzen jarraitu ahal izango dute hurrengo 40 egunetan, betiere lehenengo errondan finantzatzeko gutxieneko aurrekontua gainditu badute, eta kasu horretan bakarrik, proiektuko 3.500 euroko ureztatze-kapitalaren muga gainditu ahal izango dute.
e) Ureztatze-kapitalaren ordainketa eta herritarren dohaintzak batera egingo dira proiektuaren sustatzaileak eta Goteo

a) La cantidad total de Capital Riego de **Meta!** que aporta la Diputación Foral de Gipuzkoa es de un máximo de 70.000€.
b) La aportación duplicadora del Capital Riego sólo se realizará una única vez por persona o entidad y proyecto (esto es, desde cada perfil de usuario en Goteo). Aunque desde un mismo perfil puedan efectuarse tantas aportaciones a un proyecto como se deseen, sólo se sumará el Capital Riego en la primera aportación realizada por ese usuario y/o entidad, y por un importe máximo de 100€.
c) Al igual que en el resto de campañas de crowdfunding realizadas en Goteo, para que la suma de Capital Riego aportada a cada proyecto se haga finalmente efectiva, el proyecto debe alcanzar su financiación mínima dentro de los primeros 40 días de campaña.
d) Si transcurridos los primeros 40 días, uno o varios proyectos no consiguieran llegar a su objetivo mínimo de financiación, las aportaciones recaudadas por estos proyectos no se harán efectivas y el Capital Riego asociado a esas aportaciones quedará disponible para otros proyectos, que podrán seguir recaudando en una segunda ronda de otros 40 días siempre que hayan superado su presupuesto mínimo de financiación en la primera, pudiendo superar, sólo en este supuesto, el tope de 3.500€ de capital riego por proyecto.
e) El pago del Capital Riego y las donaciones ciudadanas se realizarán de forma conjunta y tras la firma del contrato entre

Fundazioak kontratuak sinatu ondoren.

impulsores de proyecto y la Fundación Goteo.

**7.- MIKROMEZENASGOARI ETA GOTEORI BURUZ:**

**7.1.- Kobrantzak, ordainketak, kontratuak eta komisioak**

Goteoren funtzionamendu orokorrari jarraituz, 40 egun iraungo duen lehenengo finantzaketa-errondan proiektua zehaztutako gutxieneko finantzaketa-kopurura iristen ez bada, finantzatzaileek konprometitutako kopuruak ez dira kobratuko eta, hortaz, sustatzaileak ez du kopuru ekonomikorik bat ere jasoko (ikus oinarri arautzaile hauen 6. puntua).

Lehenengo 40 egunen barruan gutxieneko aurrekontura arrakastaz iristea lortzen duten proiektuek kanpainaren bukaeran eta bi finantzaketa-errondak egin eta gero jasotako ekarpenen diru guztia bilduko dute, ureztatze-kapitalaren zenbatekoa barne.

Halaber, kanpainak irauten duen 80 egun iragandakoan eta finantzatzaileei kobratzeko orduan gerta daitezkeen gorabeherak zehaztu eta konpondu ondoren, proiektu bakoitzaren sustatzaileari egingo zaio ordainketa, kanpainaren iraunaldian proiektuak jasotako ekarpen guztien izaera eta jatorria zehaztuta dauzkan txosten bat ematearekin batera.

Ordainketa bilketa-kanpaina bukatu eta kontratua sinatu ondoren (proiektuaren sustatzaileen eta Goteo Fundazioaren artean) egingo da.

**7.2.- Ordaintzeko prozedura eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ureztatze-kapitala duen kontu-sailaren arrazoitzea**

Proiektu arrakastatsuek, ordainketa jaso baino lehen, kontratu bat sinatuko dute Goteo Fundazioarekin, eta bertan argituko dira baldintza guztiak eta parte hartzen duten alderdiek beren gain hartzen dituzten konpromisoak. Goteo Fundazioak proiektu arrakastatsuei bildutako kopuru osoaren % 4ko komisioa kobratuko die, plataformaren zerbitzuak, laguntza teknikoa, ordainketen eta kobrantzen kudeaketa, etab. erabiltzeagatik.

**7.- SOBRE MICROMECENAZGO Y GOTEO:**

**7.1.- Cobros, pagos, contratos y comisiones**

De acuerdo con el funcionamiento general de Goteo, si durante la primera ronda de financiación de 40 días el proyecto no alcanzara la cantidad mínima de financiación determinada, no se realizará el cobro de las cantidades comprometidas por los cofinanciadores y por tanto, el agente promotor no recibirá ninguna suma económica. (ver punto 6.- de estas Bases Reguladoras).

Los proyectos que consigan alcanzar con éxito su presupuesto mínimo dentro de los primeros 40 días recaudarán todo el dinero de las aportaciones recibidas al final de la campaña y tras las dos rondas de financiación, incluyéndose el importe conseguido por Capital Riego.

Y una vez finalizados los 80 días de campaña y determinadas y subsanadas las posibles incidencias en cobros a cofinanciadores, se realizará el pago al agente promotor de cada proyecto junto a un informe económico que especifica la naturaleza y el origen de todas las aportaciones recibidas por el proyecto durante la campaña.

El pago se realizará después de haber finalizado la campaña de recaudación y tras la firma del contrato entre impulsores de proyecto y la Fundación Goteo.

**7.2 Procedimiento de pago y justificación partida capital riego de la Diputación Foral de Gipuzkoa**

Los proyectos exitosos, antes de recibir el pago, firmarán un contrato con la Fundación Goteo, en el que se explicitarán todas las condiciones y asunción de compromisos por todas las partes implicadas. La Fundación Goteo cobrará a los proyectos exitosos una comisión del 4% del total de la cantidad recaudada, en concepto de utilización de los servicios de la plataforma, soporte técnico, gestión de pagos y cobros, etc. A esto hay que sumar las comisiones derivadas de

Horri gehitu behar zaizkio transakzio ekonomikoen ondoriozko komisioak (bildutakoaren % 2 ingurukoa, ekarpen gehienak nola egiten diren, Paypalen bidez edo bestelako ordainketa-pasabideen bidez). Oso garrantzitsua da komisio horiek kontuan hartzea proiektuaren aurrekontua egiterakoan. Proiektua gutxieneko aurrekontura iristen ez bada, ez da komisiorik kobratuko, eta kanpainaren garapenak ez du kosturik izango sustatzaileentzat.
Lortutako kopuru osoa -Goteoren komisioari dagokion guztizkoaren % 4 eta herritarren mikromezenasgoaren ondoriozko banku-gastuak kendu eta gero– kanpaina hasi baino lehen proiektu bakoitzeko eman den banku-kontu batean ordainduko da.

### 7.3.- Taldeko itzulketak: aske eta irekia dena sustatzea

Goteotik, **Meta!** kanpaina antolatu duen plataformatik, kulturaren esparruko herritar-prozesuak hobetzearekin zerikusia duten ekimenak sustatzen dira, emaitzen gardentasunaren, transferentziaren eta berrerabilpenaren garrantzia nabarmentzen dira, eta era horretan, ondare komunen, ezagutza askearen eta kode irekiaren garapena bultzatzen da. Hau da, proiektu horiek, lizentzia libreen erabilpenari esker (adibidez: Creative Commons edo GPL –General Public License–), taldeko itzulketak eskain ditzakete komunitate osoarentzat, ezagutza partekatuz eta sarbidea emanez iturburu-kodeari, produktu eta baliabideei, prestakuntzari, finantzatzea lortu nahi duten jarduerarekin zerikusia duten artxibo eta edukiei, kopiatu, berrerabili eta berriz nahasi ahal izateko.

- Testu hau irakurtzea gomendatzen dugu, bertan adierazten baita zer esan nahi duen aske eta irekia izateak, eta soziala denarekin duen aldea (osagarria); Testuesteka hau ere gomendatzen dugu, taldeko itzulketen adibide batzuk ezagutzeko.

Proiektuen sustatzaileak talde-itzulketen egileak izan behar dira, eta itzulketa horiek lizentzia libre edo irekien bidez partekatuko dira. Egokiena den lizentzia aukeratzea (irekiagoa edo ez hain irekia) egilearen erabakia da, eta hirugarrenek (beste pertsona

las transacciones económicas (que se sitúa alrededor del 2% de lo recaudado, dependiendo de si la mayoría de las aportaciones son hechas por Paypal u otras pasarelas de pago). Es muy importante tener en cuenta estas comisiones a la hora de hacer el presupuesto del proyecto. En caso de que el proyecto no alcance el presupuesto mínimo, no se cobrará ninguna comisión y el desarrollo de la campaña no conllevará ningún coste para los agentes promotores.
La suma total obtenida -una vez descontado el 4% del total correspondiente a la comisión de Goteo, así como los gastos bancarios derivados del micromecenazgo ciudadano-, se abonarán en una cuenta bancaria que cada proyecto habrá facilitado antes de iniciar la campaña.

### 7.3.- Retornos colectivos: promoviendo lo libre y abierto

Desde Goteo, plataforma desde la que se articula la campaña **Meta!**, se promueven iniciativas relacionadas con la mejora de los procesos ciudadanos en el ámbito de la cultura, incidiendo en la importancia de la transparencia, transferencia y reutilización de los resultados, promoviendo así el desarrollo de bienes comunes, del conocimiento libre y el código abierto. Esto es, proyectos que gracias a la utilización de licencias libres (por ejemplo: Creative Commons o GPL, General Public License), ofrezcan retornos colectivos a toda la comunidad, compartiendo conocimiento y dando acceso a código fuente, a productos y recursos, a formación, a archivos y contenidos relacionados con la actividad para la que busquen cofinanciación, que puedan copiarse, reutilizarse y remezclarse.

- Recomendamos la lectura de este texto en el que se explica a qué significa libre y abierto y la diferencia (complementaria) con lo social, así como este otro link en el que conocer algunos ejemplos de retornos colectivos.

Los impulsores de los proyectos deben ser los autores de los retornos colectivos que se compartirán con licencias libres o abiertas. La elección de la licencia más adecuada (más abierta o menos) es una decisión del autor y definirá el límite de uso de terceros (otras

edo erakunde batzuek) erabiltzeari jarritako muga definituko da horrela.

Lizentzia irekiak dituzten proiektuak bereziki baloratuko badira ere, edozein motatako lizentzia duten proiektuak aurkez daitezke. Goteok, kasu guztietan, proiektu bakoitzaren lizentziaren ezaugarriak osorik errespetatzeko konpromisoa hartuko dute.

**7.4.- Banakako sariak**

Talde-itzulketen osagarri moduan, proiektuek banakako sariak eskaini behar dituzte, proiektu bakoitza zuzenean finantzatzen duten pertsonei zuzenduta. Sari horiek emandako kopuruaren araberakoak izango dira, eta askotarikoak izan daitezke: eskertzeko hainbat modu eta proiektuari lotutako ikuspena, edo zerikusia duten eta osagarriak diren produktuak, zenbait sofistikazio-mailatakoak –emandako kopuruaren arabera–, eskaintzea besteak beste, edota merchandising, bisita teknikoak, hasierako aurkezpenetarako gonbidapenak, lantegiak, etab.

**7.5.- Lankidetza banatua**

Goteon ekarpen ekonomikoak egiteaz gain, proiektuei laguntzeko beste hainbat modu daude: mikroatazetatik hasi (itzultzaileak, tester delakoak, preskriptoreak) eta materialen maileguak (garraioa, ekipamenduak) edo azpiegiturak lagatzean (espazioak, instalazioak) bukatuta. Horregatik, proiektuetan argi eta garbi zehaztu behar da zer arlotan behar den lankidetza.

**7.6.- Beste informazio garrantzitsu bat**

Mikromezenasgorako aurkeztuko den proiektua hobeto prestatzeko, material hauek kontsultatzea gomendatzen dugu:

- Entiende Goteo y el micromecenazgo con un video de 17 minutos
- Decálogo para desarrollar un proyecto en Goteo
- Condiciones generales y Preguntas Más Frecuentes sobre Goteo
- Sobre el plan de comunicación y estrategia de difusión.
- Sobre el tipo de retornos y recompensas a ofrecer desde los proyectos.
- Sobre a qué nos referimos con libre y abierto y la diferencia (complementaria)

personas u organizaciones).

Aunque se valorarán especialmente proyectos con licencias abiertas, es posible presentar proyectos con cualquier tipo de licencia. Goteo, en todo caso, se comprometen a respetar los términos de la licencia de cada proyecto en su integridad.

**7.4.- Recompensas individuales**

De forma complementaria a los retornos colectivos, los proyectos deben ofrecer recompensas individuales dirigidas a las personas que financien directamente cada proyecto. Estas recompensas dependen de la cantidad aportada y van desde distintas formas agradecimiento y visibilidad vinculada al proyecto, hasta el ofrecimiento de productos y servicios relacionados y complementarios más o menos sofisticados, dependiendo de la cantidad aportada, pasando por merchandising, visitas técnicas, invitaciones a presentaciones en primicia, talleres, etc.

**7.5.- Colaboración distribuida**

En Goteo, además de con aportaciones económicas, se puede contribuir colaborando con los proyectos de distintas formas: desde microtareas (traductores, testers, prescriptores) hasta préstamos de materiales (transporte, equipos) o cesión de infraestructuras (espacios, instalaciones). Por eso es necesario que los proyectos especifiquen claramente en qué necesitan colaboración.

**7.6.- Otra información relevante**

Para preparar mejor el proyecto de micromecenazgo recomendamos consultar los siguientes materiales:

- Entiende Goteo y el micromecenazgo con un video de 17 minutos
- Decálogo para desarrollar un proyecto en Goteo
- Condiciones generales y Preguntas Más Frecuentes sobre Goteo
- Sobre el plan de comunicación y estrategia de difusión.
- Sobre el tipo de retornos y recompensas a ofrecer desde los proyectos.
- Sobre a qué nos referimos con libre y abierto y la diferencia (complementaria)

con lo social.
- Algunos ejemplos de retornos colectivos.
- Ejemplos de proyectos exitosos.

**8.- INFORMAZIO GEHIAGO ETA HARREMANA:**

Deialdiari, garapen-faseei eta proiektu motari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, eta **Meta!** egitasmoaren gaineko beste argitasun eta kontu praktiko batzuk lortzeko, gurekin harremanetan jar zaitezke helbide hauetan:
- meta@gipuzkoa.eus
- Manuela Frudà meta@goteo.org

Oinarriak behera kargatzeko formatuan: **meta.gipuzkoa.eus**
Deialdiaren web orrialdea: **http://goteo.org/call/meta-gipuzkoa**

**9.- XEDAPEN OROKORRAK:**

**Meta!** egitasmorako deialdian parte hartzeko, Goteoren baldintza nagusiak onartu behar dira, eta oinarri hauek osorik eta baldintzarik gabe onartu behar ditu proiektu bakoitza sustatzen duenak, sinatutako kontratuen ondoriozko konpromiso guztiak onartu behar dira. Horrez gain, ziurtzat jotzen da aurkeztutako proiektuaren egilea eta titulartasuna bermatuta daudela eta beste inoren obraren jabetza intelektualaren eskubideak urratu ez direla.

**10.- JABETZA INTELEKTUALA ETA INDUSTRIALA**

Aukeratutako proiektuen jabetza intelektuala eta industriala proiektuaren sustatzaileena izango da, aplikagarria den jabetza intelektualaren eta gainerakoaren araudiarekin bat etorriz.

Proiektuak Goteo plataforman sartzeak ez du inolaz ere esan nahi Goteo Fundazioari jabetza intelektual edo industrialeko eskubiderik lagatzen zaionik.

con lo social.
- Algunos ejemplos de retornos colectivos.
- Ejemplos de proyectos exitosos.

**8.- MÁS INFORMACIÓN Y CONTACTO:**

Para más información sobre la convocatoria, fases de desarrollo, tipo de proyectos, además de otras aclaraciones y cuestiones prácticas sobre **Meta!**, puedes contactar con nosotros a través de:
- meta@gipuzkoa.eus
- Manuela Frudà meta@goteo.org

Bases en formato descargable: **meta.gipuzkoa.eus**
Página web de la convocatoria: **http://goteo.org/call/meta-gipuzkoa**

**9.- DISPOSICIONES GENERALES:**

La participación en la convocatoria **Meta!** se ajusta a las Condiciones generales de Goteo y supone la aceptación íntegra e incondicional de estas bases por parte de quien impulse cada proyecto, así como la asunción de todos los compromisos que se derivan de los contratos. Además, se presupone la garantía de la autoría y titularidad del proyecto presentado y la no vulneración de los derechos de propiedad intelectual sobre ninguna obra ajena.

**10.- PROPIEDAD INTELECTUAL E INDUSTRIAL**

La propiedad intelectual e industrial sobre los proyectos seleccionados será titularidad de sus impulsores, de acuerdo con la normativa de propiedad intelectual y resto de legislación aplicable.

La inclusión de los proyectos en la plataforma Goteo no implica en ningún caso la cesión a Fundación Goteo de derecho de propiedad intelectual o industrial alguno.